

# ABENDUKO LIBURU PROPOSAMENAK

## HAURRAK

### TARTA GOXOA

0-6 URTE



«Tarta goxoa» egitea ez da hain erraza. Begira, bestela zer-nolako kinkan dabilen gure Anatole, bere gonbidatua badatorrela eta estu eta larri. Prestatzen ari den tartak oso itxura txarra du, eskerrak ba dituen lagun atsegin batzuk, bakarrik utziko ez dutenak


### NIRE OINEN AZPIAN



Gure oinen azpian, bizi-bizirik dago lurzorua! Animalia asko bizi dira bertan. Ezagutu zizareen, kukurutxen, kolenboloen eta lurzoruko beste bizilagun batzuen bizitza ezkutua, urtaroz urtaro.

### NESKATO JURASIKOA

6-8 URTE



Begiratu baten Vanninak beste umeen modukoa dirudi: bere buruan sinesten du eta azkarra da. Hala ere, beldur txiki asko ditu eta neurritz kanpoko pasio ere bai: Zer gertatuko litzateke hitz magiko bat baliatu eta agerraraziko balitu?

### HANS ETA IGELA

8-10 URTE




Europako ipar aldeko herriren batetik dator Hans. Zain dago plazako arkupeetan bere igel lagunarekin. Atertu duenean, plazaren erdira irten eta biolina jotzen hasi da. igelak laguntzen dio bere dantza eta gimnastikarekin.

## HELDUEN LITERATURA

### DENDAOSTEKOAK

EUSKAL LITERATURA



Botoi bat josi liburu bat gomendatzen den bitartean, eta diskoak saldu txapelak brodatu ondoren. Eta, bitartean, uholdeak, atxiloketa eta atentatuak, txikiteoa, jaiotzak eta heriotzak. Denda baten kronika literarioa idatzi du Uxue Alberdik eta, bide batez, garai batena ere bai.